# erraldoiak eta Bergara:

## jaia, musika, herria

BERGARA 2021. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

**Irailaren 10etik 26ra** • Del 10 al 26 de septiembre

# BERGARAKO ERRALDOI TALDEA

Bergarako Erraldoi Taldea (BET) proiektu irekia da, horregatik ezer baino lehen Bergarako neska-mutilei eta gurasoei gure taldeko parte izatera gonbidatu nahi zaituztegu.

2000. urtean bere ibilbidea hasi zuenetik BETek taldekide eta ikusle kopuruan, irteeretan eta bestelako ekintzetan nabarmen egin du gora.

Eta hori guztia gertatu bada, neurri haundi batean Bergarako herritarren babesari esker izan da. Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiegu konpartsako kide izan diren guztiei, bai eta denbora honetan lagundu diguten norbanako, enpresa eta erakundeei ere.

Eskerrik asko guztioi!

Bergarako Erraldoi Taldea (BET) es un proyecto abierto, y es por ello, que antes de nada queremos lanzar una invitación a la gente joven y madres/padres de Bergara para que se incorporen a nuestra comparsa.

Desde que en el año 2000 BET comenzó su andadura, la comparsa ha ido creciendo en el número de participantes y seguidor@s, actuaciones y actividades, etc…

Y todo ello ha sido en gran parte por el apoyo del pueblo de Bergara. A su vez, quisiéramos agradecer a todas aquellas personas que han sido miembros de la comparsa, así como a las personas particulares, empresas e instituciones que nos han ayudado en este tiempo.

¡Muchísimas gracias a tod@s!

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN
Bergarako Erraldoi Taldea

ANTOLATZAILEAK ORGANIZADORES
Bergarako Erraldoi Taldea
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LAGUNTZAILEA COLABORADOR
Jon Andueza (The Badass Project)

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL
LG D 1114-2021

AYUNTAMIENTO
DE
VERGARA

SECRETARÍA

10 de Enero de 1925

Sr. Don E. Vidal BARCELONA
Escultor atrezista - Ronda de S. Pablo 48

Muy Sr. mío: Cumplimentando un acuerdo adoptado por la Comision municipal permanente de mi presidencia, de la que forma parte Don Pedro Otazua, á quien Vd. conoce, por haber visitado su establecimiento háce algunos meses, le ruego se sirva remitirnos, pues proyectamos ulizarlos las próximas Fiestas de Carnaval, dos gigantes de cinco metros de altura, con sus armazones de madera, ojos de cristal y peluca y cuatro cabezudos. Tanto los gigantes como estos deberán enviarse sin trajes. El modelo para los gigantes debe ser el de los de Barcelona (Fivaller y su pareja).

El precio de este encargo será el de pesetas mil, tal como indicó á dicho Sr. Otazua.

Don José Monsó, hermano político del mismo Sr. Otazua, y residente en esa Ciudad, le visitará uno de estos días para enterarle de algunos detalles referentes al particular.

Le saluda atentamente su affmº S.S.Q.E.S.M.

*BERGARAKO UDAL ARTXIBOA. Azpifondo administratiboa. BUA 01 C/1025 (1167)*

**Erraldoien erosketa, 1925**
Bergarako Udalak 1925ean egindako erosketa-agindua. Ezagutzen den dokumenturik zaharrena da.
Iturria: Bergarako Udal Artxiboa

**Compra de Gigantes, 1925**
La orden de compra realizada por el ayuntamiento de Bergara en 1925. Se trata del documento conocido más antiguo.
Fuente: Archivo Municipal de Bergara


BERGARAKO UDAL ARTXIBOA. Toribio Jauregi fondoa Egilea: T. Jauregi, 1943 inguru

**Hastapenak**
Irudi honetan,
Bergarako Zubieta kaleko
erraldoiak agertzen dira,
1943ko neguan
kalejira bat egiten.
Iturria: Bergarako Udal Artxiboa

**Inicios**
En esta imagen
aparecen los gigantes e
n la calle Zubieta de Bergara
haciendo un pasacalle
en el invierno de 1943.
Fuente: Archivo Municipal de Bergara




**Jaietako egitarauak**

Erraldoiak betidanik izan dira Bergarako jaietako parte. Gaur egun Bitorianatxoren jaitsierarekin jaiei hasiera ematen zaien bezala, lehen askotan erraldoien kalejirek ematen zieten hasiera herriko jai batzuei. Hemen hainbat jai egitarau.
Iturria: Bergarako Udal Artxiboa

**Programas de Fiestas**

Los gigantes siempre han sido parte de la fiesta en Bergara. Así como hoy en día es Bitorianatxo la que abre las fiestas de Pentecostés, en muchas ocasiones antes eran los gigantes los encargados de inaugurar los festejos. Aquí algunos programas.
Fuente: Archivo Municipal de Bergara













**80ko hamarkada**

80ko hamarkadatik aurrera Felix Beitia, Guti eta Felixin (beste lagun batzuekin batera) arduratu ziren Mari Kattalin eta Joxe Bixente erraldoiak berreskuratu eta jaietan ateratzeaz.

Iturria: Bergarako Udal Artxiboa

**Años 80**

A partir de los años 80 Félix Beitia, Guti y Felixin (junto a otros amigos) se encargaron de recuperar y sacar en fiestas a los gigantes Mari Kattalin y Joxe Bixente.

Fuente: Archivo Municipal de Bergara
















**Musikarik gabe, ezer ez**

Zuhaitz batzuek loratzeko udaberria behar duten bezala, erraldoien konpartsek musika behar dugu dantzatzeko eta jai giroa sortzeko. Beraz, esan genezake erraldoiak musika barik figura batzuk besterik ez direla. Benetako nortasuna eta indarra musikaren eskutik datorkigu eta horregatik omenaldi xume eta, aldi berean sentikorra egin nahi izan diegu gurekin dauden eta egon diren musikariei. **Biba musika!** Udal Txistulari Banda, Kobok, Elgoibarreko Gaiteroak, Arrasateko Gaiteroak, Azpeitiako Gaiteroak, Bergarako Musika Banda, Urretxuko Gaiteroak eta Bergarako Trikitilariak.

Así como algunos árboles necesitan la primavera para florecer, las comparsas de gigantes necesitamos música para bailar y crear un ambiente festivo. Por lo tanto, podríamos decir que los gigantes sin música no son gigantes, son sólo unas figuras. La verdadera personalidad y fuerza nos viene de la mano de la música y por eso hemos querido hacer un homenaje humilde, pero de corazón, a los músicos que están y han estado con nosotros. **¡Bravo por la música!** Udal Txistulari Banda, Kobok, Elgoibarreko Gaiteroak, Arrasateko Gaiteroak, Azpeitiako Gaiteroak, Bergarako Musika Banda, Urretxuko Gaiteroak eta Bergarako Trikitilariak.



## Magdalena eta Ximon

Magdalenak eta bere bikotekide Ximonek XVIII. mendeko herriko ahaldun eta jauntxoak irudikatzen dituzte. Magdalenaren soinekoa Eulalia Abaitua argazkilari bizkaitarraren lanetan oinarrituta dago (ikusi argazkia). Ikusgarria da soineko marroi dotore horrekin nolako bueltak eta dantzak egiten dituen. Irudi guztietatik pisu handiena Magdalenak dauka, 55 kilotik gora. Egindako bigarren erraldoia da, 2000. urtean, eta 2009. urtean jarri zitzaion izena, herri-kontsulta baten bitartez. Ximonek, berriz, bere txistera, bibote eta piparekin, irudi serio bezain elegantea ematen du.

Magdalena, junto a su pareja Ximon, representan a la clase pudiente, los señores de la villa, del siglo XVIII. Es espectacular verla girar y bailar con su elegante vestido marrón, inspirado en la obra de la fotógrafa vizcaína Eulalia Abaitua. De todas las figuras, es la que más peso tiene, más de 55 kilos. Es el segundo gigante realizado, en el año 2000, y su nombre fue elegido mediante consulta popular en 2009. Ximon, por su parte, con chistera, bigote y pipa, ofrece una imagen tan seria como elegante.



## Marisa eta Peru

Peruk eta Marisak, kaleko burgesiarekin alderatuz, bestelako errealitate bat adierazten dute: baserritarrak eta baserri mundua. Marisak antzinako emakume baserritarrak irudikatzen ditu, kalera bere jantzi ederrenekin jaisten, amantal zuriarekin. Egindako laugarren erraldoia da, 2003. urtean, eta 2009. urtean jarri zitzaion izena, Bergarako plazan, herri galdeketa baten bitartez.

Peruk antzinako gizon baserritarrak irudikatzen ditu, kalera bere jantzi ederrenekin jaisten, ahoan zotza daramala. Egindako hirugarren erraldoia da, 2003. urtean, eta 2009. urtean jarri zitzaion izena, Bergarako plazan, herri-galdeketa baten bitartez.

Peru y Marisa, en contraste con la burguesía urbana, representan otra realidad: la gente del campo y el mundo rural. Marisa es el modelo de la antigua mujer baserritarra que bajaba a la calle con su mejor atuendo, su blanco delantal. Es el cuarto gigante realizado, en el año 2003, y su nombre fue elegido mediante consulta popular celebrada en la plaza de Bergara en el 2009.

Peru representa también al antiguo hombre baserritarra que bajaba a la calle con su mejor atuendo, y con el palillo en la boca. Fue el tercer gigante que se creó, en el año 2003, y su nombre fue elegido mediante consulta popular celebrada en la plaza de Bergara en el año 2009.

2000. urtean Bergarako Erraldoi Taldea (BET) bi figurarekin hasi zen. Gaur egun, konpartsak 18 figura ditu, horietatik 8 Udalarenak dira eta 10 BETenak. Baina guztiek gorde nahi izan dute Bergarako historiarekin nolabaiteko lotura bat.

En el año 2000 Bergarako Erraldoi Taldea (BET) comenzó con dos figuras. Actualmente son 18 las figuras con las que cuenta la comparsa, de ellas, 8 son del Ayuntamiento y 10 de BET. Pero todas ellas tienen en común el grado de afinidad con la historia de Bergara.














**Guti eta Felixin**
Jaiaren arima dira: Ijito ezkontza batean, LGTBI mugimendua aldarrikatzen, Bilboko Txupinera eta Pregonerarekin, Udaltzain batekin neurriak jartzen, barraketan, Korrikan (beti euskararen alde), etabar.

**Guti y Felixin**
Son el alma de la fiesta: En una boda gitana, reivindicando el movimiento LGTBI, Con la Pregonera y Chupinera de Bilbao, poniendo orden junto a la Autoridad, en las barracas, en la Korrika (siempre a favor del euskara), etc.



Donostia, 2013




Mutriku, 2017



Altzo, 2018



Torrejón, 2018



Bilbo, 2019



Reus, 2019

**Bergarako izen ona zabalduz**

Bergararen izen ona zabaltzeko asmoz, beste herri batzuetara joaten gara. Hauek normalean Euskal Herri mailakoak izan ohi dira: Aretxabaleta, Gasteiz, Donostia, Mendaro, Azpeitia, Bilbo, Iruña, Berriozar, Soraluze, etab. Baina 20 urte hauetan beste leku eta esperientzia batzuk ezagutzeko aukera izan dugu: Navarclés, Sant Andreu, Molins de Rei (hirurak Bartzelonan), Aguilar de Campoo (Palentzia), Reus (Tarragona), Burriana (Castello), Torrejón de Ardoz (Madril), Palentzia, etab.

**Abriendo Bergara al exterior**

Con el objetivo de difundir el buen nombre de Bergara hacemos salidas a otras localidades. Estas suelen ser a nivel de Euskal Herria: Aretxabaleta, Gasteiz, Donostia, Mendaro, Azpeitia, Bilbao, Iruña, Berriozar, Soraluze, etc. Pero en estos 20 años hemos tenido la oportunidad de conocer otros lugares y experiencias: Navarclés, Sant Andreu, Molins de Rei (los tres en Barcelona), Aguilar de Campoo (Palencia), Reus (Tarragona), Burriana (Castellón), Torrejón de Ardoz (Madrid), Palencia, etc.

# ESKERTZAK

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu erakusketa honetan parte hartu duten eta aurrera eramaten lagundu diguten pertsona, elkarte, saltoki eta erakundeei euren ezagutza, baliabideak, argazkiak, istorioak eta materiala eskaintzeagatik:

# AGRADECIMIENTOS

A través de estas líneas queremos agradecer a las personas, asociaciones, comercios y entidades que han participado y nos han apoyado para llevar a cabo esta exposición, aportando conocimiento, fotografías, recursos, historias y material:

Jon Andueza (The Badass Project)
Bergarako Udal Artxiboa
Aroztegi Aretoa
Jardun
K3 Inprimategia
Mila Etxaniz (Xuxu denda)
Javi Vicente
Jorge Murgiondo
Felix Beitia
Iñigo Alberdi
Euskal Museoa, Bilbo
Txarli Gomez
Gotzon Aranburu
Matz-Erreka, Koop. Elk.

# erraldoiak eta Bergara:

## jaia, musika, herria



**Ordutegia:**

| | |
|---|---|
| asteartetik ostiralera | 18:00 - 20:30 |
| larunbatetan | 12:00 - 14:00 |
| | 18:00 - 20:30 |
| igande eta jaiegunetan | 12:00 - 14:00 |

AROZTEGI
ARETOA

Bergarako
Udala

Barrenkale 7, 20570 BERGARA • Tel.: 943 77 91 59 • e - posta: kultura@bergara.eus